



EDIKTUA

MENDI PISTAK ETA BIDEAK ERABILTZEKO ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA HASIERA BATEZ ONARTZEA

Etxarri Aranazko Udalak, 2017ko uztailaren 5ean egin bilkuran, honako hau ERABAKI ZUEN:

Hasiera batez onestea Etxarri Aranazko mendi pistak eta bideak erabiltzeko arautzen duen ordenantza .

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatuari jarraikiz, onetsitako ordenantza jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, ordenantza behin betiko onetsi, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Etxarri Aranatzeko Udala, 2017ko uztailaren 10ean
Alkatorde: Maria Saez de Albeniz

